

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2016ko otsailaren 26an aurkeztuko du

Andy Warhol: Itzalak

Andy Warhol: Itzalak

- Noiz: 2016ko otsailaren 26tik urriaren 2ra
 - Dia Art Foundationek antolatutako erakusketa
-
- *Itzalak* serieko inprimaketa positibo eta negatiboak txandaka agertzen dira aretoko paretetan. Errepikakorra badirudi ere, Warholen metodo “mekanikoa”, benetan, esku-lana da eta piktorikoa erabat. Beraz, ezin da inolaz ere erreproduzitu itxuraz seriean ekoiztutakoa den artelan hau, eta auzitan jartzen du Warholen “plagio”aren estetika.
 - *Itza/bakoitza* forma jakin bati dagokio, espazioa zehaztasun osoz betetzen duena eta behatzailearen begirada argirantz zuzentzen duena, argia baita serie honen gai nagusia. Warholek itzaletan jarri zuen arreta osoa artelan honetan argia pizteko (kolore eztrandak) eta horrela artearen oinarritzko gaira bueltatu zen: hautematea.
 - Warholek berak adierazitako hutsalkeriaren kontra, lan-prozesuak zein bere Factoryaren “muntaketa-lerroa”k berariaz aldarrikatzen zuten gizarte- zein politika-haustura.

Guggenheim Bilbao Museoa Andy Warholen *Itzalak* saila (1978 – 79) aurkeztu nahi du. Formatu handiko 102 serigrafia-panelek osatzen duten artelan itzela da, eta Warholek egindako abstrakzioari buruzko miaketa batzuk adierazten ditu. Horretarako, artistak bere paleta berezia baliatzen du, bere obraren zati handi batean ezagun egin zen tonu distiratsu eta alaietakoa. Arte-arduradun Lucía Agirre Guggenheim Bilbao Museoko *Andy Warhol: Itzalak* erakusketan lanean ari da; erakusketa Dia Art Foundation-ek antolatu du.

Andy Warhol, 50 urte zituela, pop-artearen ikono lotsagabe eta garaiaren kronikagileak artelan itzel bati heldu zion, *Itzalak* (*Shadows*) deitutakoa, Factory ospetsuko kideen laguntzaz. Artelan honetan, urte batzuk lehenago, artistak *Herdoiltzea* (*Oxidation*), *Rorschach* eta *Kamufflajea* (*Camouflage*) margolanetan abstrakzioari buruz egindako miaketa batzuk mamitu zituen. *Herdoiltzea* edo *Pixa* (*Piss*) margolanetan ez bezala (hor kobrez estalitako mihisea orbandu egiten baitzen haren gainean isuritako pixaren azidotasunaz), *Itzalak* saileko panelak serigrafiak dira. Warholen *Itzalak* artelanak dakarren erradikaltasuna ulertzeko, beharrezkoa dugu ohartzea, lehenik eta behin, artelan hau zati askotan banatutako pintura bakarra izateko sortu zela, eta haren behin betiko kopurua instalaziorako erabiliko den espazioaren neurrien baitan dagoela. Lehenengo aldiz egin zuen jendaurreko aurkezpenean, 83 mihise baino ez ziren egon erakusgai, zorutik 30 bat cm-tara ipinita, elkarrengandik oso gertu, eta artistaren laguntzaileek, Ronnie Cutronek y Stephen Mueller-ek erabakitako ordenan.

Mihiseak pintura akrilikoz estali zituzten irudia inprimatu baino lehen, eta Warholen ohiko tonu distiratsu eta alaiak erakusten dituzte. Funts hauetan dozena bat tonu desberdin baino gehiago biltzen badira ere, *Itzalak* seriean bere obra osoko kolore oso ohiko batzuk agertzen dira, adibidez, *Izpiliku koloreko hondamendia (Lavender Disaster)* laneko bioleta zeharrargia (1963), edo *Marilyn turkesa (Turquoise Marilyn)* pinturako ur-itsaso berdea (1964). Warholen aurreko pinturretan, arrabol bidez aplikatutako pintura akrilikoko geruza meheek hondo bat osatzen zuten eta, horien gain, irudi beltz pixelatuak serigrafiatzen ziren; aldiz, horietan ez bezala, *Itzala*keko hondoak esponja-mopa batez pintatu zituzten, eta horrek utzitako marrek eta trazuek keinuzko sentsazio bat ematen diote plano piktorikoari. Artelan hau sortzeko, zazpi edo zortzi pantaila erabili ziren; nabaria da alde ilunetako eskala-aldaketa argian, baita argi-zuloen presentzia arbitrarioan ere.

Itzalak serieko inprimaketa positibo eta negatiboak txandaka agertzen dira aretoko paretetan. Itxuraz errepikakorra izan arren, Warholen metodo “mekanikoa” erabat eskuzkoa da benetan. *Itzalak* artelaneko gertaera adierazgarri bat ustezko “erreproduktzio” hori ezin erreproduzitzea da. Bada, horrek auzitan jartzen du Warholen plagioaren estetika, eta bere proiektua funtsean piktorikoa dela uzten du agerian. Argibide hori, Donna de Salvo komisarioak Warholen atzera begirako erakusketako katalogoan adierazi zuen, eta ezinbestekoa da serie itzel hau sortu zenetik 39 urtera ulertu ahal izateko. De Salvo ohartu bezala, “pintura hauei aplikatutako ikusizko estrategia bakoitza 17 urte lehenago erabilitako berdina da. Lehenengo serigrafia-pinturei buruz gertatu bezala, itzalaren gaia errepikatu egiten denez, hasieran uste izan zen mihise guztiak berdinak zirela, baina benetan, ez dira”. Erreplika bat baino, *Itza*/bakoitza bere espazioa zehaztasunez eta irmotasunez erakusten duen forma batekin bat dator, eta behatzailearen begirada argirantz zuzentzen du, argia baita serie honen gai nagusia. Warholek itzaletan jarri zuen arreta osoa artelan honetan argia pizteko (kolore eztaidak) eta horrela artearen oinarritzko gaira bueltatu zen: hautematea. Warholek berak adierazi bezala, “gauzei begiratzean, betetzen duten espazioa ikusten dut beti. Espazioa berragertzea nahi dut, beti; atzera bueltatzea, espazio galdu bat baita barruan zerbait baldin badauka”

Artista

Andy Warholek argi eta garbi aitortu zuen “gauza aspergarriak” gogoko zituela, eta, ondorioz, 1960ko hamarkadaren hasieran, egunkari, aldizkari eta artxibategietako argazki-erreproduktzioak erabiltzera lerratu zen. Kultura popularreko “ready-made” ikonoei arreta jarritz, Warholek bilduma ikonografiko bat metatu zuen bizitza osoan, tartean zirela kontsumoko produktuak, pertsonaia ospetsuen, bizitza sozialeko pertsonaien edo gaizkileen erretratuak, baita trafiko-istripuen, aulki elektrikoaren edo arraza-istiluen argazkiak ere, gero mihisean serigrafiaren teknika komertzialaren bitartez adieraziak. Warholen baieztapen kontraesankorrek eta bere ibilbidean ohiko bihurtu ziren asmo-adierazpen aldakorrek antzezpentzat baino ez dira hartzen egun, arreta handiz egositako autoparodia batean kokatuta.

Beharbada artistaren harridurarako, zabaldu zituen gai hutsalak eta egunerokoak subertsio politikorako eredu kementsua bihurtu ziren belaunaldi oso batentzat, Hollywooden, pop

musikaren eta Vietnameko Gerraren zein Eskubide Zibilen Mugimenduaren eraginpean zenean. Atzera begiratu, Warholen obra oparoak, hainbat bitartekoren bitartez mamitu zenak (adibidez, marrazketa, grabatua, serigrafia-mihiseak, Polaroid argazkiak eta zuri-beltzeko inprimaketak, baita super 8 eta 16 mm-ko pelikulak ere), gaurdaino ez du parekorik izan ugaritasunari dagokionez. Bere artelanak hutsak zirela aitortu zuen eta, halako batean adierazi zuenez, “Andy Warholi buruz guztia jakin nahi baduzu, nire margolanak eta pelikulak, ni, ikusi besterik ez duzu, eta hor naiz ni. Ez dago ezer gehiago”. Aldiz, artistaren lan-prozesuak eta bere Factoryaren “muntaketa-lerroa”k berariazko gizarte- eta politika-haustura iragartzen zuten, aurrekaririk gabeko lotsagabekeria eta ironia.

Biografia

Andy Warhol Pittsburgan jaio zen (Pensilvania) 1928an, eta McKeesporten hazi zen (Pensilvania). 1945etik 1949ra, arte-ikasketak egin zituen Carnegie Institute of Technologyn, eta diseinu pikturikoan lizentziatu zen. 1949an, New Yorkera lekualdatu zen ilustratzaile komertzial bihurtzeko eta, 1950eko hamarkadan, marrazkiak zein pinturak erakusgai jartzen hasi zen. 1962an, lehendabizikoz, eskuz margotutako Campbell zopa-lata bat jarri zuen erakusgai Los Angeleseko Ferus Galleryn, eta bere serigrafia-pinturak ere New Yorkeko Stable Galleryn erakutsi zituen. Une horretatik aurrera, bere lana luze eta zabal egon zen ikusgai, nola AEBn, hala nazioartean. Warhol 1987ko otsailaren 22an hil zen.

In Focus didaktika: Andy Warhol

In Focus atala da erakusketa monografiko bakoitzean Museoaren 105. aretoan sortzen diren Didaktikei ematen diegun izena. *Andy Warhol: Itzalak* kasuan, badugu didaktika-gune bat, erakusketarako espresuki sortutako jarduerak eta aretoetako orientatzaileen lana.

Didaktika gunea

Aretoan bertan dagoen didaktika-guneak ikus-entzunezko esperientzia eskainiko dio bisitariari kolore- eta argi-estimuluen bitartez. Horiek Warholen ekoizpenaren gako-ideiekin txandakatuko dira, adibidez, abstrakzioarekin edo irudien ekoizpen mekanikoarekin. Hain ezaguna ez den artistaren unibertso horrek bisitaria bere artelanen protagonistak diren argi-ilunetan bilduko du, literalki.

***Andy Warhol: Itzalak* heziketa-jarduerak**

- ***Kolorea eta Emozioa: Warhol-i buruzko ikuspegi bat* (2016/3/10)**

Leatrice Eiseman nazioartean ezaguna den Pantone Color Institute erakundeko zuzendari betearazleak Andy Warholen lanari, eta bereziki, *Itzalak* eta *Ehun eta berrogeita hamar Marilyn koloretsu*obrei buruzko beste ikuspegi bat eskainiko du: koloreak erabiltzeko artistak izandako modu berezia aztertuko du. Kolorearen psikologian aditua, Eisemanek, ikuspegi kultural eta asoziatibotik, kolorearen pertzepzio emozionalari buruz hitz egingo du.

- **Bisitaldi bereziak**

Bisitariak muntaketaren zirrikituak eta erakusketako beste bitxikeria batzuk deskubrituko ditu Museoko profesionalak egindako bisita paregabe hauetan, *Partekatutako Hausnarketak* programan kokatutakoak.

Arte arduradunen ikuspegia: 2016/3/2. Lucia Agirre, Guggenheim Bilbao Museoaren arte-arduraduna.

Funtsezko kontzeptuak: 2016/3/9. Marta Arzak, Guggenheim Bilbao Museoaren Hezkuntza eta Interpretazio Zuzendariordea.

Aretoetako orientatzaileak

Erakusketen edukiari buruzko argibideak eskuratzeko, bisitariak aretoetako orientatzaileengana jo dezake. Museoak egunero 11etatik 14etara eskaintzen duen doako zerbitzua da.

Azaleko irudia:

Andy Warhol

Itzalak (Shadows, 1978 – 79)

Dia Art Foundation

Instalazioaren ikuspegia: Dia:Beacon, Beacon, New York

© 2016, The Andy Warhol Foundation for the Visual Arts, Inc. / VEGAP

Argazkia: Bill Jacobson.

Argibideetarako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Arloa

Tel.: +34 944359008

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia www.guggenheim-bilbao.es duzu eskueran (prentsa-eremua).

Prentsa irudiak:
Andy Warhol: *Itzalak*
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.es

Andy Warhol

Itzalak (*Shadows*, 1978 – 79)

Dia Art Foundation

Instalazioaren ikuspegia: Dia:Beacon, Beacon, New York

© 2016, The Andy Warhol Foundation for the Visual Arts, Inc. /

VEGAP

Argazkia: Bill Jacobson.



Andy Warhol (1928-1987) *Itzalak* (*Shadows*) atzean duela, Heiner Friedrich Gallery, New York-en, 1979

© 2016, The Andy Warhol Foundation for the Visual Arts, Inc./VEGAP

Argazkia: Arthur Tress.

Eskeintza Dia Art Foundation, New York

